

HIRU ONENAK

Durangokoez gain, Fredi Paia algortarra bikain jardun zen. Gerra agindu zuen agurretik, eta agindutakoa bete

ONDORENGOAK

Iratxe Ibarra eta Etxahun Lekue ez ziren gehiegi nabarmendu, baina bertsoz bertso erakutsi zuten euren maila

ETA BESTEAK

Enbeita, Muniategi eta Gaztelurrutiak ere ale ederrak eginda alde egin zuten Euskaldunatik

erantzukizuna.
Alkohola uzten zoaz
non duzu zentzuna?
Lehenago ho(r)i ez nuen
zugandik entzuna...
a ze mozkorra, Unai,
gaur hartu duzuna!

Unai Iturriaga:
Ez. Lehen eguna dot
alkoholik bakoa.
Atzo ebatzi nuen:
-kitto, ta nahikoa.
Urruntxo joan da ta
gu bion jokoa.
Zoriona dakarrela...
ez izan tontoa,
bihar kenduko dizu
gaur emandakoa.

Hurrengo bertsoan, Fredik hitz joku bikaina egin zuen: «Alkohola uzten bazoaz / esan zaidazu non» eta Unai ezin hobeto erantzun zion «alboan utziko dut / ni aurrera noa».

Kartzelakoaren txanda heldu zen horrenbestez. Hor bai, plazarik gehien egiten dituztenek argi erakutsi zuten nagusi zirela. Bi puntuei ondo erantzun zieten gehienek; eta gero ehun urteko agure baten larruan ipini zituzten bertsolariak.

Elortzak «hezurak dodaz apur bat gogor / ta bihotza nahiko txarto / baina umorea daukat oindino / beste ehun urterako» bota zuen lehenengoan; eta «egun berri bat argitzea da / niretzat pozteko beste / ta gazte asko ikusten ditut / beti dabizenak triste» bigarrenean. Unai egin zuen lanik biribilena. Agian ez ziren amaierako ideiak apartekoak izango, baina bertsoak bikain bete zituen:

Unai Iturriaga:
Kandelari putz egin da gero
desioa joan da kean;
ehun urte dira, mende bat, horra;

pentsatu dut bat-batean.
Gaixotasunak eduki arren
luzaroan atakean
oindino tente ta lasai nago
basarriko atarteetan.
Neure famili ta lagunekin
bizi gura dot bakean
ta pozik nago inorentzako
karga ez naizen artean.

Lan betea egin zuen bigarrenen ere: «Lehen begiratzan gendun gabea / izar txikien distira / orain ilobak ikusten dodaz / makina bati begira. / Salto galanta eman dot beraz / istoriotik historira; / mendea(r)i gaina hartzea behintzat / posible dela ikusi da». Errematea ere gutxiren esku dagoenetakoa: «eta patrikan gorde behar dot / ehun ta batgarren kandela».

Ale ederrenen artean sartzeko moduko ideia bat bota duen Gaztelurrutiak gai honekin: «jaiotza datan jartzen duen lez / gaur bete dut ehun urte / bizitza erdi emango nuke / beste pare baten truke».

Unai eta Igor, elkarrekin lehian

Mandalunizek azken txanpa bi durangarrek jokatu zuten eta zortziko txikian ekin zioten Igor lenzeria probatzen ari zen amonak eta Unai sailtzaile gazteak. Saio bizi eta umoretsua egin zuten. Ondoren, Espainiako bandera jagoten ari ziren bi soldaruren paperean jardun behar izan zuten koplak bikoitz hautsian eta Unai kokka atera zion Igorri, «ez dakit bera ez al dagoen / gu bioi jagoten» esanaz hasi zen eta Igorrek «Espainia baino handiagoa / dugu bandera hau» bota zuen; hiperbole hari tiraka jarraitu zuten: «Perejilenak dira azkeneko / hiru-lau metroak», «Madril osoa apurtu behar du / jausten

bada behera». Unai «Aizu, Fernandez, hau ez da jausten / lurra igotzen da!» erantzun zion zorrotz eta «orduan adi gagozen geu be / papara jasota» amaitu zuen Igorrek.

Kartzelakoari ekin aurretik Unai Igorri aurrea hartu zion, baina kartzelan zoragarri jardun zen Igor. Gaia hunkigarria zuten: Gabonetan etxean bakarrik zegoen pertsona bat, mahaia birentzat prestatu

zuen. Hona bere lehen bertsoa:

Igor Elortza:
Bi plater dagoz mahaian jarrita
bi plater ez dira zero
nire maitea joan egin zen
ta bihotza daukat bero.
Ai bera hemen balego
ni ez nengoke hain ero!
Gaixoa joan egin zan urrin
hogeitaz urte eta gero.
Hil eban gaixoak edo,

ta politta, goian bego.
Ordutik hona mahaian jartzen dot
bere platera urtero.

Hirugarrena «inpresioa dot hala / bat-batean, berehala / tinbrea din-donjo ta atetik / barriz etorriko dala» amaitu zuen. Unai ere lan polita egin zuen, baina ez bere lagun minarenaren parekoa. Igorrek bere lagunei eskaini zien bere hirugarren txapela; tartean Unai eta Beinati, noski.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Pozik jantzi zuen Igor Elortzak bere hirugarren txapela.

IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS



Miren Artetxek irabazi du Xenpelar saria

Atzo, Bertsolari Gazteen Xenpelar saria jokatu zen eta Miren Artetxe hendaiarra izan zen garaile 287 punturekin. Bigarren geratu zen Jon Martin oiartzuarra 284,5 punturekin, eta hirugarren berri Jokin Uranga azpeitiarra 279,5 punturekin.

Sei bertsolari izan ziren aurrez aurre Erretereria Hiria kulturgunean, eta inor nabarmendu ez zen

arren, amaieran argi zegoen hiru bertsolari horietako bat izango zela garaile.

Bestalde, Estitxu Eizagirre hernaniarrari eman zioten Bertso onenaren saria, kartzelako gaien bota zuen bertsoarengatik. Atal horretan, bera izan zen kantuari umorea gehitu zion bakarra. Besteak askoz ere serioago aritu ziren.